

## KANAL ETIKOAREN PRIBATUTASUN-POLITIKA

### 1. Arduradunaren identifikazioa eta harremanetarako datuak.

Kanal Etikoaren bidez eman dizkiguzun datu pertsonalak, bai eta zure kontsulta edo salaketa kudeatzean jasotzen diren bestelakoak ere, honako hauek tratatuko dituzte:

- Euskaltel SA (helbidea: Parke Teknologikoa, 809 eraikina. 48160 Derio. IFK: A-48766695),
- R Cable y Telecable Telecomunicaciones SAU (helbidea: Real 85. 15003 Coruña. IFK: A-15474281).

Biak izango dira tratamenduaren erantzunkide (aurrerantzean, Taldea), bakoitzaren betebeharrak arautzeko sinatu duten erantzunkidetasun-kontratuan oinarrituta. Gure webguneko Pribatutasun Politika atalean daukazu kontratu horri buruzko informazio guztia. Halaber, datu-babeserako ordezkari bat dute, Talde osorako izendatua. Hauxe da harekin harremanetan jartzeko helbidea: [dpdgrupoeuskaltel@euskaltel.com](mailto:dpdgrupoeuskaltel@euskaltel.com)

### 2. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Taldeak zure datu pertsonalak tratatzen ditu Euskaltel Taldearen irregulartasunei, politikak ez-betetzeari edo urratzeari, kodeei eta Taldeari aplikatu dakioken edozein legeri edo araudiri buruz aurkeztutako salaketak edo kontsultak kudeatzeko.

Pertsona hauek bakarrik izango dute Kanal Etikoan jasotako datuetarako sarbidea: une bakoitzean araudiak betearazteko funtzioak dituzten pertsonak, eta, hala badagokio, horretarako izendatzen diren tratamendu-arduradunek, 4. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Bestalde, giza baliabideak kudeatzeko eta kontrolatzeko funtzioak dituzten langileak ere sartu ahalko dira, hala dagokionean diziplina-neurri bidezkoak hartzeko beharrezkoa denean.

### 3. Zein da zure datu pertsonalen tratamenduaren legitimazioa?

Zure datu pertsonalak Taldearen interes legitimoaren arabera tratatuko ditugu, hau da, barne-araudia, definitutako politika, kode eta jarduera-araudiak eta legezko xedapen orokor edo sektorial oro betetzen direla zainduz, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 4. Nori jakinaraziko zaizkio zure datuak?

Aurkeztutako salaketa prozedura judizial edo administratibo batekin amaitzen bada, epaileek, auzitegiek edo agintari eskudunek ere informazio hori eskuratu ahal izango dute.

Kontratututako zerbitzua eman ahal izateko datu pertsonalak behar dituzten Taldeko informazio-sistemen eta teknologiararen alorretako zerbitzu-emaileek datuok eskuratu ahal izango dituzte. Jakinarazten dizugu, bestalde, zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik ez dugula egingo.

## 5. Zenbat denboran gordeko ditugu zure datu pertsonalak?

Salaketekin/kontsultekin lotutako datuak ustezko salatuari buruzko ikerketa bat hasi behar den ala ez erabakitzeke behar den denboran gordeko dira gure sistemetan. Dena den, salaketa jartzen denetik hiru hilabetez gordeko dira gehienez. Taldeak erabakitzen badu ez dela ikerketarik egingo, edo aipatutako epea betetzen bada, Kanal Etikoaren sistematik ezabatu egingo dira datuok. Dena dela, salaketa-kanal bat edukitzeko betebeharra betetzen dela frogatzeko mantendu ahal izango dira. Nolanahi ere, bideratu ez diren salaketak anonimizatu egingo dira.

Taldeak ikerketa bat hasi behar dela erabakitzen badu, datuak Kanal Etikotik ezabatuko dira, eta dagokion sisteman tratatuko dira. Sistema horietan, ikerketa ondo egiteko, dagozkion prozedura administratibo eta judizialak tramitzeko eta, hala badagokio, diziiplina-neurriak hartzeko behar-beharrezkoa den denboran soilik gordeko da informazio hori. Tramitazioa bukatutakoan, datuak blokeatuta gordeko dira, salaketa-kanal bat edukitzeko betebeharra betetzen dela frogatzeko.

## 6. Zer eskubide dituzu?

Eskubide hauek balia ditzakezu:

- (i) zure datu pertsonaletara sartzeko eskubidea;
- (ii) zuzena ez den datu pertsonal oro zuzentzeko eskubidea;
- (iii) datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, ahal den kasuetan;
- (iv) datu pertsonalen tratamendua mugatu dadin eskatzeko eskubidea, baldin eta datu-tratamenduaren zehaztasuna, legezotasuna edo premia zalantzazkoa bada; horrelakoetan, datuak gorde ahal izango dira, erreklamazioak egin edo defendatu behar direnerako;
- (v) datu pertsonalen tratamenduari kontra egiteko eskubidea.

Noiznahi baliatu ahal izango zara eskubide horietaz; horretarako, aski da zure nortasuna egiaztatzea (NANaren edo haren baliokide den agiriren baten bidez). Doan da, eta bide hauetakoren bat erabiliz egin dezakezu:

1. Mezu elektronikoa bat idatziz [canaletico@euskaltel.com](mailto:canaletico@euskaltel.com) helbidera: "EZEAK eskubideak gauzatzea" esaldia jarri behar duzu, baliatu nahi duzun eskubidea eta zure identifikazio-datuak zehaztuta.
2. Idatzizko eskaera bat bidaliz Euskaltel Taldeko araudia betearazteko arduradunari, helbide honetara: Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160 Derio, Bizkaia. Erreferentzian, argi idatzi behar duzu "EZEAK eskubideak gauzatzea" esaldia, eta baliatu nahi duzun eskubidea eta zure identifikazio-datuak zehaztu.

Jakinazten dizugu, bestalde, eskubidea duzula erreklamazioak aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, uste baduzu datu pertsonalen tratamenduan datuak babesteko legeria urratu dela.